

Gipuzkoako enpresen artean kezka eta ezkortasuna handitu dira merkatuen okertzearen ondorioz

Enpresen %23,5ek uste du bere merkatuak atzeraldian daudela; aldiz, suspertzea ikusten dutenen kopurua %21,5era jaitsi da. Datu horiek 2021eko apiriletik eta 2020ko irailetik izandako okerrenak dira.

Industria-enpresen %29,5ek uste du bere merkatuak atzeraldian daudela: metalgintzakoen %28k eta ez-metalikoek %35ek.

2026ko lehen hiruhilekoan batez besteko fakturazioa %-1,4 jaitsi zen aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, batez ere industriaren bilakaera negatiboaren ondorioz, eta bereziki makineria eta ekipamenduaren adarrean.

Fakturazioa jaitsi egin da industria-enpresen %37rentzat; metalgintzakoek %34,5entzat (%26,5 metalurgian eta %50 makinerian) eta ez-metalikoek %45entzat; eraikuntzan %33,5entzat eta zerbitzuetan %30,5entzat.

Eskaera-zorroa %-1,5 murriztu da industriaren eta eraikuntzaren bilakaera negatiboaren ondorioz.

Enpresen %35,5ek eskaera-maila ahula duela dio. Industria-enpresen %40k eskaera-maila ahultzat jotzen du, 2021eko urtarriletik izandako daturik okerrenetakoak.

Enpresen %87,5ek aurreikusten du plantilla mantendu edo handituko duela; iaz baino 3,5 puntu gutxiago.

Industria-enpresen ia %20k (%19,5) aurreikusten du plantilla murriztu beharko duela. Ehuneko hori %25era igotzen da ez-metalikoetan.

Lehengaien eta energiaren hornidura eta/edo prezioa da enpresen kezka nagusia, eta bi enpresatik bati eragiten dio.

Bigarren kezka nagusia lan-kostu handiak eta soldaten igoerak dira (%40).

2026an Gipuzkoan urteko batez besteko 1.000 eta 2.000 enplegu garbi artean sor litezke, batez ere zerbitzuen eta eraikuntzaren sektoreetan.

Donostia / San Sebastián, 2026ko maiatzaren 27a

Merkatuaren egoera

Enpresen %23,5ek uste du bere merkatuak atzeraldian daudela; suspertzea ikusten dutenen kopurua, berriz, %21,5era jaitsi da, 2021eko apiriletik izandako daturik okerrenak.

Industria-enpresen %29,5ek uste du merkatuak atzeraldian daudela: metalgintzakoen %28k eta ez-metalikoen %35ek.

Merkatuaren egoera atzeraldikotzat jotzen duten enpresen kopurua 6 puntu igo da urtarriletik, eta %23,5era iritsi da; hau da, 2021eko apiriletik izandako mailarik altuenera.

Industria-enpresen %29,5entzat merkatuak atzeraldian daude; metalgintzakoen %28rentzat eta ez-metalikoen %35entzat. Eraikuntzan, enpresen %22k adierazi du atzeraldia dagoela; zerbitzuetan, berriz, %14k, merkataritza eta ostalaritzan (%16,5) enpresentzako zerbitzuetan (%8,5) baino gehiago.

Merkatuaren egoera suspertze-fasean dagoela uste duten enpresen kopurua 3 puntu jaitsi da urtarriletik, eta %21,5era jaitsi da; 2020ko irailetik izandako mailarik baxuenera. lazkoarekin alderatuta, 3,5 puntu gutxiago dira.

Industria-enpresen %16,5ek suspertzea ikusten dute; metalgintzakoen %18,5ek eta ez-metalikoen %10ek. Eraikuntzan %22k ikusten du suspertzea; zerbitzuetan %29,5ek, merkataritza eta ostalaritzan %23,5ek eta enpresentzako zerbitzuetan %37,5ek.

Enpresen %55ek merkatuaren egoera normaltzat jotzen dute; urtarriletik 3 puntu gutxiago, baina iaz baino 0,5 puntu gehiago.

Industria-enpresen %54k normaltasuna ikusten dute; metalgintzan %53,5ek eta ez-metalikoetan %55ek. Eraikuntzan %55,5ek eta zerbitzuetan %57k; merkataritza eta ostalaritzan %60k eta enpresentzako zerbitzuetan %54k.

Laburbilduz, enpresen %76,5ek merkatuaren egoera normaltzat edo suspertze-fasekotzat jotzen dute; urtarriletik 6 puntu gutxiago eta 2021eko apiriletik izandako mailarik baxuena.

Merkatuaren egoera enpresek duela hilabete batzuk aurreikusitakoa baino nabarmen okerragoa da. Hurrengo hilabeteetarako ezkortasuna mantentzen dute, ez baitute hobekuntzarik aurreikusten.

Suspertzea aurreikusten duten enpresak %24ra igoko liratekeen arren, atzeraldia aurreikusten dutenak %25,5era igoko lirateke (egungo %21,5 eta %23,5etik). Aurreikuspen horiek betez gero, merkatuak atzeraldian dituzten enpresen kopurua 2021eko urtarriletik izandako handiena izango litzateke; suspertzea ikusten dutenena, berriz, 2020ko irailetik bigarren txikiena.

Fakturazioa eta salmentak

2026ko lehen hiruhilekoan batez besteko fakturazioa %-1,4 jaitsi zen aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, batez ere industriaren eta, bereziki, makineria eta ekipamenduaren adarraren bilakaera negatiboaren ondorioz.

Industria-enpresen %37k fakturazioa jaitsi dela adierazi dute; metalgintzakoen %34,5ek (%26,5 metalurgian eta %50 makinerian) eta ez-metalikoen %45ek. Eraikuntzan %33,5ek eta zerbitzuetan %30,5ek.

Industrian, bai metalgintzako bai ez-metalikoetako enpresen bilakaera negatiboa izan da. Hala ere, metalgintzaren barruan, makineria eta ekipamenduan beherakada handia izan da; aldiz, metalurgian eta produktu metalikoetan igoera moderatua gertatu da. Merkatuen arabera, kanpo-merkatuan fakturazioa %-0,5 jaitsi da eta barne-merkatuan %-2,5.

Hiru enpresatik batek baino gehiagok salmentak jaitsi direla adierazi du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta; laurden batek pasatxok, berriz, igo direla. Industrian %37 eta %24 dira, hurrenez hurren.

Lehen hiruhilekoan salmentak igo direla dioten enpresen kopurua 13,5 puntu jaitsi da urtarriletik, eta %27ra iritsi da; azken urteetako daturik baxuenetako bat.

Salmentak mantendu direla dioten enpresak %39 dira; urtarriletik 2 puntu gehiago, baina iaz baino 11,5 puntu gutxiago.

Laburbilduz, salmentak mantendu edo handitu dira enpresen %65,5entzat; urtarriletik 11,5 puntu gutxiago eta 2024ko irailetik mailarik baxuena, 2020ko irailetik bigarren baxuena.

Industria-enpresen %63rentzat salmentak mantendu edo igo dira; metalgintzakoen %65,5entzat eta ez-metalikoen %55entzat. Eraikuntzan %66,5entzat eta zerbitzuetan %69,5entzat; merkataritza eta ostalaritzan %63,5 eta enpresentzako zerbitzuetan %76.

Eskaera-zorroa

Eskaera-zorroa %-1,5 jaitsi da industriaren eta eraikuntzaren bilakaera negatiboaren ondorioz.

Enpresen %35,5ek eskaera-maila ahula dutela diote. Industria-enpresen %40k eskaera-maila ahultzat jotzen dute, 2021eko urtarriletik izandako daturik okerrenetakoak.

Industria-enpresen %40k eskaera-maila ahula dute; metalgintzakoen %39k (%41 metalurgian eta %46 makinerian) eta ez-metalikoen %45ek. Eraikuntzan %22 dira eta zerbitzuetan %30,5.

Eskaera-maila handia dutela dioten enpresak %22,5 dira; 2021eko urtarriletik, urtarrilean bakarrik izan da maila baxuagoa.

Industria-enpresen %19,5ek eskaera-maila handia dute; metalgintzakoek %22k (%23,5 metalurgian eta %19 makinerian) eta ez-metalikoen %10ek soilik. Eraikuntzan %55,5 dira eta zerbitzuetan %22.

Enpresen %42k eskaera-zorro normala dutela diote; urtarriletik 2 puntu gutxiago eta iaz baino 1,5 puntu gutxiago.

Laburbilduz, eskaera-maila normala edo handia dutela dioten enpresak %64,5 dira, 2021eko urtarriletik izandako mailarik baxuenetako batean.

Produkzio-gaitasunaren erabilera

Produkzio-gaitasunaren erabilera-maila %84an dago, enpresa handienek ekarpenari esker. Sektore guztiek berriro gainditzen dute %80ko langa, nahiz eta industria ez-metalikoa eta metalurgia eta produktu metalikoak azpitik mantentzen diren.

Plantillak

Enpresen %87,5ek aurreikusten dute plantilla mantendu edo handituko dutela; iaz baino 3,5 puntu gutxiago.

Industria-enpresen ia %20k aurreikusten du plantilla murriztu beharko duela; ez-metalikoetan %25era iristen da.

2026an 1.000 eta 2.000 soldatapeko enplegu garbi artean sor litezke.

Enplegua handitzea aurreikusten duten enpresak %18,5 dira; urtarriletik 2,5 puntu gutxiago.

Industria-enpresen %16,5ek plantilla handitzea aurreikusten dute; metalgintzakoek %18k (%20,5 metalurgian eta %19 makinerian) eta ez-metalikoen %10ek. Eraikuntzan %11 dira eta zerbitzuetan %23.

Enplegua murriztu beharko dutela aurreikusten duten enpresak %12,5 dira; urtarriletik puntu 1 gehiago eta iaz baino 3,5 puntu gehiago.

Industria-enpresen %19,5ek plantilla murriztu beharko dutela uste dute; metalgintzakoek %18k eta ez-metalikoen %25ek. Eraikuntzan ez dago halakorik aurreikusten duen enpresarik; zerbitzuetan, berriz, %3,5.

Kezka-faktoreak

Lehengaien eta energiaren hornidura eta/edo prezioa da enpresen kezka nagusia; enpresen %52,5entzat da arazoa. Urtarriletik 35 puntu igo da, eta 2023ko urtarriletik izandako mailarik altuena da.

Eraikuntzako sektorea da kezkarik handiena erakusten duena (%78), industriaren (%56,5) eta zerbitzuen (%42,5) gainerik.

Lan-kostu handiak eta soldaten igoerak dira bigarren kezka nagusia, enpresen %40rentzat.

Hirugarren tokian nazioarteko ekonomiaren ahultasuna dago (%33), laugarrenean tentsio geopolitiko eta komertzialak (%32,5), eta bosgarrenean lan-absentismoa (%32).

Langile kualifikatuak kontratatzeke zailtasuna enpresen %24,5entzat da kezka; salmenten errentagarritasunaren beherakada, berriz, %18rentzat.

Zerrenda amaitzen dute Espainiako ekonomiaren ahultasunak (%15,5), kostu baxuko herrialdeen lehiakortasunaren igoerak (%11,5), giro sindikalak (%6,5), banku-finantzaketak (%5), enpresa-fiskalitateak (%5), nazioarteko garrario-tentsioek (%5), bezeroen berankortasunak (%4) eta truke-tasak (%4).